

Lezoko Ihauteriak

Zustarilko batek baino gehiagok aurtengo edo lehengo urteko Lezoko ihauterien berri izango du agian. Askok ikusiko zuten jo-andako urtean larunbata batean egin zen desfile ikusgarri bat, eta egun gutxi geroago "Sardinaren hileta" (Entierro de la sardina) delako hori. Askok hartu zuten parte ihauteri horietan gogoz eta alaitasunez.

Aurten ere ihauteriak izan ditugu Lezon, programa berdintsu baino zabalago batekin: ostiraleko Putxerolada; larunbateko desfilea, zinemaldia; eta astearte sardinaren hileta. II. Ihauteri hauetan ere jende askok gogo haundiarekin parte hartu zuten. Baina ez dakiguna zera da: zergaitik hasi dira egiten ihauteri hauek Lezon, horretarako tradizioarik ez duen herrian? Nork antolatu ditu eta nola?

Guzti hau zuei azaltzeko ASKE aldizkariak EKAITZ ATSEDEEN TALDEKO lokaletara urbildu gera beraiekin hitzegitera, badakigu eta talde hau bi urte hauetako ihauteriak mugitzen ibili direneta-koa izan dela.

Hemen doakizue EKAITZ'ekoekin gai honetaz eduki gemen elkarrizketa laburra:



ASKE: Nola sortu zen Lezon ihauteri batzuk egiteko asmoa?

EKAITZ: Jakingo duzue guk Ekaitzen gatzetxo batzuk ditugula, eta beraiekin urtean zehar ekintza batzuk egiten ditugula. Lehengo urteko ekintza horietako bat ihauteriak ziren. Baina Ekaitzentzako soilik, gure aktibitate bat bezala. Horretarako Ekaitzeko gatzetxoak desfile bat egitea proposatu zuten, eta hori egiteko lanean hasi ginen, konparsa prestatzen alegia. Orduan guk gure ihauteriak herriera zabaltzea pentsatu genuen, eta horretarako Lezoko elkarte, eskola, fanfarre etab., bilera batetara konbokatu genituen. Bilera hartan denon artean ihauteri proiektos aurrera eramatera erabaki genuen. Hau da: ihauteri egunetan desfile bat eta sardinaren hileta egitea. Honela, udaletxera, elkarte guzti hauek izenpetutako eskutitz bat bidali genuen guzti hori esplikatzeko eta udaletxeari zera eskatuaz: nahiz eta ideia elkarte hauena izan, ihauterien organizazioa bere iniziatiba bezala har zedin. Era berean ihauteri hauen presu-puestos aurkeztu genuen. Baina udaletxeak ez zuen ezer erantzun. Hala eta guztiz ihauteriak aurrera eramane ziren.

ASKE: Zein izan ziren ihauterien lehenengo urte honetan parte hartu zuten elkarteak?

EKAITZ: Bileretara ihauteriak prestatzera etorri zirenak hauek izan ziren: Allerru, Takili Takulu fanfarrea, Ixkulin, Txerrimuño, Guraso Elkartea (Padres de Familia) eta Ekaitz. Hala ere, elkarte hauek alde batera utzita, jende askok parte hartu zuen. Adibidez katekesiak bere haurrak animatu egin zituen desfileerako, eta fanfarrearen atzetik, beste asko bezela, han ibili ziren.

ASKE: Zer nolako oroimenak dituzue ihauteri hauetaz?

EKAITZ: Nahiko onak. Kontentu irten ginen. Bai gu eta bai beste elkar-teak. Herriak oraindik ihauteri hauek gogoratzen dituela uste dugu. Ez zen beste munduko gauza izan, baina hasteko nahiko ondo egon zen.

ASKE: II Lezoko ihauteriak, urte hontakoak alegia, nola sortu dira? Elkarte berdinak bildu al zarete berriro?

EKAITZ: Beno, lehengo urtean garbi gelditu zen aurten ihauteriak nahi bagenituen hauek prestatzeko elkarteak bildu beharko ginela. Zeren gainera udaletxeak ez zuen iniziatiba berea bezela hartu. Aurtengo ihauteriak gaineen genituelarik eta inongo elkarterik danak berriro elkartzeko kezkatzen ez zenez, guk, Txerrimuñoekin hitzeginda, eskutitz bat egin genuen beste elkarte guztiei bilera batetara konbokatuz. Aurretik udaletxera, kulturako komisiara hain zuzen, beste eskutitz bat bidali genuen ia zertan gelditu zen lehengo urtean bidali genuen idatzi hura galdetzeko. Hontan ezezkoa eman zuen. Eta, esan diezuegun bezela, elkarteak berriro elkartu ginen. Bilera hontan eskutitzaren erantzunaren berri eman genuen, eta oso garbi geratu zen, nahiz eta udaletxeak ihauteri hauek bere iniziatiba bezela ez hartu, guk festa nahi eta egin behar genuela. Era honetan elkarteok ihauterietako programa bat egin genuen danon artean. Elkarteak, gutxi gora behera, lehengo urtekoak izan dira. Aurtengo ihauteriak ihazkoak baino zabalagoak izan ditugu: Putxerolada, desfilea, zinemaldia eta sardinaren hileta.

ASKE: Programa idatzi bat ere atera de, ez?

EKAITZ: Bai, ihauteri hauetako lana gure artean banatu genuen. Ixkulingoak, adibidez, egunkari batetara lezoko ihauterien berri ematera konprometitu ziren; Allerrukoak trafikoa zuzentzeko lezoko hertzainei laguntza eskatzea; Ekaitz, elkarteen presupuestoak jasotzeko etab. Eta Txerrimuñoak izan ziren, hain zuzen, programa hori egiteko arduradunak. Programa berez, hau da: egitarau guziak, elkarteok egin genituen, baina programa hortako esaldiak eta imajinazioa bereak izan dira.

ASKE: Aurtengo ihauteriekin ere kontentu?

EKAITZ: Bai. Festa orokorrean oso ondo irten da. Begira, gauz bat esan-gu diezugu: lehengo urtean desfileerako elkarte gehiago zeuden, aurten berriz askoz ere gutxiago, zeren elkarte guziak ez gera desfilea soilik prestatzen egon, eta hala ere desfilean lehengo urtean baino jende gehiago atera dela iruditu zaigu. Benetan, gu, eta gu bezela jende asko, oso pozik gaude aurtengo ihauteriak nola atera diren ikusi eta gero.


ASKE:Eta datorren urteko ihauteriak?

EKAITZ:Benoa,ikusiko dugu.Elkarteok bildu beharko dugu berriré. Baina ez genuke nahi gu,Ekaitzekoak edo beste elkarte batek ihauteriak egin behar ditugula esatea.Baizik eta,honetaz jabetuaz,elkarte guztiak izan gaitezen,batak besteari ihauteriak laister ditugula gogoratu araziz,prestatzen hasi behar dugunak.

Hemen ikusi duzue Lezoko ihauterien historia berria.Dagoeneko bi urtetan ospatu ditugu gure herrian.Zergaitik ez martxa honetan jarraitu? Festa baten urteetako tradizioa ez da bera bakarrik sortzen. Hasi eta urte batetik bestera egiten joaten da,herri guztiaren lana eta gogoarekin.Goazen bada guztiok ihauteri hauek surrera eramaten saiatzea!

Mikel SUSPERREGI

EKAITZ



ATSEDEEN TALDEA